

MANIFESTU NAZIONALISTA. ARE SEPARATISTA ERE

ESANGO NIOKE, ESTUTUZ GERO

C. Ulises Moulines

Txalaparta, Tafalla, 2006

Jatorriz gaztelaniaz 2001ean argitarata emandako *Manifestu nazionalista* euskaraz argitaratu da. Gure testuinguru sozial eta politikoa kontuan hartuta harritzekoa badirudi ere, ez dugu gure hizkuntzan nazionalismoa ikerketasmoekin aztertzen duen lanen soberrakinik. Liburu hau, hortaz, nazionalismoaren euskarazko bibliografia txikiarentzat albiste pozgarria da, are kontuan izanda azkenaldian euskaratutako lanak (Ernest Renanen *Zer da nazioa?*, kasu) klasikoak direla.

Manifestua euskaraz berriki argitaratu arren, bestalde, izan du jada islamik euskarazko hausnarketa idatzian, *Jakin* aldizkarian, hain zuzen. Zehazkiago, *Manifestuaren* edizio honen sarreraren egile Iñaki Sotok (2007) elkarrizketatu zuen egilea. Hizpide dugun liburua argitarata eman eta berehala, halaber, eztabaida handia piztu zen filosofiako nazioarteko aldizkari zenbaitetan (eztabaida Euskal Herriari nahikoa loturik emanaz, gainera). Eztabaida hori Josu Txapartegik (2007) jaso zuen aldizkari bereko artikulu batean.

Manifestu Nazionalistaren egile Ulises Moulines, bere aldetik, ez da nazionalismo gaiak ikertzeagatik ezaguna, zientziaren filosofian egile entzutetsua baizik. Halakoetan, gai batean esperientzia gutxikoa izatea nabarmenegi geratzea gerta daiteke, batetik; baina, bestetik, urruntasunaren ondorioz normalean gertatzen diren

hainbat bizioz jabetzea ere gerta liteke. Nire ustez, lan honekin bigarren kasuaren aurrean gaude. Has gaitetzen, bada, liburuaren edukietan arreta jartzen.

Nazionalismoa aztergaitzat duten lanen ikuspuntutik, *Manifestuak* ekarpen bat dakar. Ondokoaz ari naiz: nazionalismoa bezalako hain ikergai «gatazkatsu» eta askotan zehaztugabearen argitasun kontzeptuala ipintzeko asmo irmoa, batetik; eta nazionalismoa zerbait txar edo ekidiezintzat hartu beharrean, proiektu positibo gisa aurkeztea, bestetik.

Bigarren ideia horri helduko diot orain. Nazionalismoa akademiatik aztertzen duten lanetan estaturik gabeko nazionalismoen aurkako jarrera nagusia edo, gutxienez, oso hedatua da. Moulinesek bi taldetan banatzen du nazionalismoaren ikerketan nagusi den ildo hau: negazionismoa eta kontranzionalismoa. Lehenek nazioen existentzia bera ukatzen dute: estatutik at ez dago ezer, esango dute, eta are gutxiago naziorik. Nazioak elite batzuen buruetan egongo dira, asko jota, baina ez dira inongo errealitate. Negazionistak, era honetan, gizarte-zientzien ikuspegi positibista edo enpirista erradikalarekin lotzen ditu Moulinesek. Zientziaren filosofia tresnatzat hartuz, ikerkuntzan —baita gizarte-arloko ikerkuntzan ere, noski— kontzeptu teorikoen beharra azaltzen digu filosofoak. Politika-zientziak, diosku Moulinesek,

zientzia gisa aurrera jo nahi badu, nazioaren gisako kontzeptu teorikoak kontuan hartu beharko ditu ezinbestean.

Manifestuan zehazten den bigarren taldeari, kontranazionalistei, dagokienez, nazioak badirela aitortzen duten arren, nazionalismoaren aurka ekiten dute, nazionalismoak euren iritziz gaiztoak baitira, bortitzak, itxiak. Moulinesek dioen bezala, «mikroorganismo infektzioen» pareko egitateak lirakeke kontranazionalisten aburuz nazioak: zorigaiztoko errealitateak. Kontranazionalismoa, hortaz, ikuspegi zientifikoa baino gehiago jarrera politikoa da, nazionalismoen ikerketan hedaturik dagoen ikuspegi izan arren.

Moulinesek bi posizio horien argumentuei buelta ematen die, zientziaren filosofo legez kontzeptuen erabilera zorrotz aztertuz. Filosofoak argi utziko du nazioa edozein gizarte-ikerketatan (eta politika-zientzian nahiz soziologian ezinbestean) erabili beharreko kontzeptua dela, gizarte errealitatearen hainbat aspektu azaltzeko baliogarria baita eta, maila zabalagoan, gizarte-zientziak zuzenean behatu daitezkeen errealitateak ikertzera mugatzen badira beraien izaera bera ukatzen baitute. «Munduan gertatzen denetik zerbait ulertu nahi badugu, ezin dugu nazio kontzeptua alboratu», Moulinesen hitzetan (2008: 63). Bestela, hainbat fenomeno kultural nahiz politiko ulertezin bihurtzen dira.

Nazioen eta nazionalismoen ikerketan argitasun kontzeptuala ipintzeko egiten duen deia eta saiakeragatik, *Manifestuak* Walker Connorren (1994) etnonazionalismoa lantzen duen liburu interesgarria ekarriko digu gogora. Kontzeptuen zehaztasunaren aldeko borroka horregatik bakarrik ez ditugu

bi autoreok harremanean ipiniko, gainera; Moulinesek, Connorrek bezala, nazionalismoaren ikerkuntzan etniaren kontzeptuaren beharra aldarrikatzen baitu. Are eta gehiago, Moulinesentzat politika-zientzian, soziologian eta etnologian etniak oinarri-oinarrizko kontzeptua izan beharko luke, gizarte-bizitzaren oinarritzko unitatea den heinean. Definizio antzuetan sartu gabe, horrela, egileak etniaren jite kulturala azpimarratzen du, ezaugarri zenbaitekin defini ezin daitekeena:

Etnia terminoak eta horren mendeko «nazioak», entitate politiko-kultural autonomoak adierazten dituzte, ez dira bihurturik (...) beste entitate oinarritzkoagoetara, hala nola diren arraza, hizkuntza, erlijioa, etab. (2008: 80).

Zentzu horretan, *Manifestuan* nazioaren kontzeptualizazio interesgarri eta erabilgarria proposatzen da. Gizarteak etnietan banaturik daude, mugak ipintzea zaila den oinarritzko unitateetan, beraz. Eta nazioak etnia mota jakin bat izango dira: kontzientzia politikoa duten etniak, hain zuzen. Nazioa, hortaz, kontzeptu guztiz politikoa da, politikoki kontziente diren etniak baitira nazioak.

Moulinesen kontzeptualizazioa urrun dago Ernest Gellner erreferentetzat duen nazionalismoaren ulerkera modernistatik. Moulinesek, nazioaren azterketan etnia kontzeptua kontuan izatearen beharra azpimarratzean, nazioen izaera aurremoderno mahaigaineratzen du, horretan sakontzen ez badu ere.

Kontzeptuen argipenean sakondu eta orain hemen azaltzea ez dago-kigun «miniteoria» interesgarria azaldu ostean, Moulinesek azken kapituluan «Zergatik izan behar den nazionalista» azaltzen digu.

Filosofoak aniztasunaren aldeko aldarria egin eta sakon azaltzen du, izaera «ekologista» duen *pluralismoaren berezko balioaren printzipioa* defendatuz. Halaber, aniztasunak izan beharreko nahitaezko mugak ere argitzen ditu, minbiziaren adibidearekin bezala, zeina —printzipioa absurdura eramanez— aniztasunaren ikuspegitik «ekarpen» bat litzatekeen. Horrela, mota horretako eztabaida antzuetatik ihes egiteko, aniztasunaren balorazio positiboari muga argia ipintzen dio Moulinesek: besteari (dela pertsona, dela landarea, baina baita nazioa ere) bizitzen eta garatzen uztea.

Nazioekin ere printzipio hori aplikatzen du Moulinesek eta, beraz, ahalik eta nazio gehien egotea positiboa dela defendatzen du. Zentzu horretan izan behar da nazionalista, egilearen aldarrikapenaren arabera eta, bide horretan, nazionalismo internazionalista da bere proposamena. Hau da, bere nazioa soilik ez, baizik eta nazio guztiak era baikorrean hartzen dituen nazionalismoa (beti ere *pluralismoaren berezko balioaren printzipioari* eta horren mugari jarraituz). Nazionalismoaren ulerkera honetan, hortaz, nazionalismoaren eta hegemonismoaren arteko bereizketa argia egin behar da. Hegemonismoa bere izaera nazionala beste etnia edo nazio batzuei inposatzeko saiakera da, nazionalismo faltua, Moulinesen aburuz. Horri guztiz kontrajartzen zaiona da nazionalismo internazionalista.

Manifestuarekin batera, gibel-solas gisa Espainiari loturiko hausnarketa dakar liburuak, azalduko ikuspuntuak gure errealitate hurbilari aplikatuz. Testuinguru horretan nazionalismoaren auzia aztertu nahi badugu, hegemonismoarekin eta nazionalismoaren arteko banaketa horretatik abiatu beharko gara. Halaber, edizio honen bereizgarri den Iñaki Sotoren hitzaurrea dakar liburuak, Moulinesen planteamendua nazionalismoari buruzko ikerlan andanean kokatzeko baliagarri dena.

Finean, *Manifestu Nazionalistak* bestelako ikuspuntua islatzen du: filosofia-ren aldetik egindakoa (Euskal Herrian gutxiago landu dena), eta aztergaitzat duen fenomenoaren aldeko argudioak ematen dituena, ohi ez bezala. Lanak nazionalismoaren konplexutasuna hobeto atzematen laguntzen du.

Erreferentziak

- Connor, W. (1994): *Ethnonationalism: The Quest for Understanding*, Princeton University Press, Princeton.
- Gellner, E. (1983): *Nations and nationalism*, Blackwell Publishers, Oxford.
- Txapartegi, J. (2007): "Zer gordetzen digu Artetak ez-nazionalista mozorroaren atzean? Moulinesen nazionalismo sesesionista vs Artetaren nazionalismo hegemonikoa", *Jakin*, **162**, 41-68.
- Soto, I. (2007): "Nazionalista bat konplexurik gabe. Elkarrizketa Ulises Moulinesi", *Jakin*, **162**, 11-40.

Iker Iraola